

Deklarazioa, Erromako Itunen berrogeita hamargarren urteurrena dela-eta

Mendetan, Europa ideia bat izan da, bake eta ulermen itxaropena. Itxaropen hori egi bihurtu da. Europa bateratzeak bakea eta ongizatea ekarri dizkigu, gure erkidegoa sendotu du eta gure kontraesanak gainditu ditu. Herrialde guztiek Europa bateratzen eta demokrazia eta zuzenbide-estatua indartzen lagundu dute. Europa erdialde eta mendebaldeko herrien askatasun-grinari esker, gaur egun Europako banaketa artifiziaia behin betiko gainditua dago. Europar integrazioarekin erakutsi dugu borroka odoltsuen eta sufrimenduz betetako historiaren lezioa ikasi dugula. Gaur egun elkarrekin bizi gara, lehen posible ez zen moduan.

Europar Batasuneko hiritarrak, gure onerako, bat eginda gaude.

I

Europar Batasunean partekatzen ditugun ideiak egi bihurtzen ari gara: guretzat gizakia da ardatza. Gizakiaren duintasuna sakratua da. Gizakiaren eskubideak besterenezinak dira. Emakumezkoek eta gizonezkoek eskubide berberak dituzte.

Ahalegintzen gara erdiesteko bakea eta askatasuna, demokrazia eta zuzenbide-estatua, bata bestearenganako errespetua eta elkarrenganako erantzukizuna, ongizatea eta segurtasuna, tolerantzia eta partaidetza, justizia eta elkartasuna.

Europar Batasunean modu berezian bizi gara eta jarduten dugu; eta hori estatu-kideen eta Europako erakundeen arteko bizikidetza demokratikoan jartzen da agerian. Europar Batasunaren funtsak dira eskubide-berdintasuna eta bizikidetza solidarioa. Horrela, estatu-kideen interesak orekatzen ditugu.

Europar Batasunean estatu-kideen nortasuna eta tradizioen aniztasuna zaintzen ditugu. Irekitako mugen eta gure hizkuntza, kultura eta eskualdeen aniztasun bizia aberastasuntzat ditugu. Helburu asko ezin ditugu bakarrik lortu, elkarrekin, ordea, bai.

Lanak Europar Batasunaren, estatu-kideen, eskualdeen eta udalerrien artean banatzen ditugu.

II

Estatuen mugetan geratzen ez diren erronkei egiten diegu aurre. Erronka horiei Europar Batasunarekin egiten diegu aurre. Bat eginda soilik zaindu dezakegu etorkizunean gizarte europarraren gure ideala, Europar Batasuneko hiritar guztien onerako. Eredu horren ardatzak arrakasta ekonomikoa eta gizarte-erantzukizuna dira. Merkatu bateratuak eta euroak indartu egiten gaitu. Bi elementu horiekin gure balioetara egokitu ditzakegu, batetik, munduan gero eta handiagoa den elkarmendekotasun ekonomikoa eta, bestetik, nazioarteko merkatuetan gero eta latzagoa den lehia. Europako aberastasunaren oinarriak jendearen jakintza eta gaitasuna dira; horiek dira hazkundearen, enpleguaren eta gizarte-kohesioaren gakoak.

Elkarrekin borrokatuko dugu terrorismoaren, delinkuentzia antolatuen eta legez kanpoko inmigrazioaren kontra. Eta hiritarren askatasuna eta eskubideak defendituz egingo dugu, baita etsaien kontrako borrokan ere. Arrazismoari eta xenofobiari ez diegu berriz ere atea ireki behar.

Gure nahia da munduko gatazkak modu baketsuan konpontzea eta gizakiek gerraren, terrorismoaren eta biolentziaren biktima ez izatea. Europar Batasunak askatasuna eta garapena sustatu nahi ditu munduan, pobrezia, gosea eta gaixotasunak ahultzea. Horretarako, aitzindari izaten jarraituko dugu.

Politika energetikoko eta klimaren babeseko ekimenak elkarrekin eraman nahi ditugu aurrera, munduko aldaketa klimatikoaren mehatxuari aurre egiteko.

III

Europar Batasunak, gainera, bere irekierari eta bere kideen borondateari esker, barne-garapena gauzatu ahal izango du, denak batera arituz. Batasunak, halaber, mugez gaindi demokrazia, egonkortasuna eta ongizatea sustatzen jarraituko du.

Europa bateratuz aurreko belaunaldien amets bat egi bihurtu dugu. Gure historiak eskatzen digu bizi dugun egoera hau hurrengo belaunaldientzat babestea. Horretarako, Europako egitura politikoa garai berriei egokitzen jarraitu behar dugu. Hemen gaude, beraz, Erromako Itunak sinatu eta berrogeita hamar urtera, Europako Parlamenturako 2009ko hauteskundeak heldu bitartean Europar Batasunari oinarri komun eta berrituak emateko ahaleginean elkar hartuta.

Europa, izan ere, guztion etorkizuna da.